



# euskal kanten jaialdia

## santutxun



*Santutxuko kultur hamabostaldiaren zentru gisa, euskal kanten jaialdi bat antolaturik zegoen. Jaialdia ikastetxe batetako jolaslekuan zen, egurats pean, hots, aire zabalean. Etorri ziren kantariak, ondoko hauxek: Pantxo eta Peio, Mikel Laboa, Xabier Lete, Lourdes Iriondo eta Antton Valverde.*

Maiatzaren 8a —hauxe izan baitzen horretarako aukeraturik zegoen eguna— gris kolorez jantzirik agertu zen Santutxun. Goizean zera ilun, euria noiz egiten hasiko zain. Baina, zorionez, ez zuen euririk egin. Eta arratsaldeko zazpi terdietatik aurrera, jendeak eurrez bete zituen, Berriotoxa ikastetxerantz zeramatèn kaleska hestu, aldapatsu eta bihurriak. Zazpi edo zortzi mila lagun football zelai batetako zoluan eseririk: lasai, alai, kantari.

Bat batean, eta alboko orubean eraikiriko garabi batean, ikurrina bat jarri zuten. Jendeak oso ongi hartu zuen, egintza hura biziki eta bihozkiro txalotuz.

Eta jaialdia hasi zen. Parte hartu zuten lehenak, Pantxo eta Peio izan ziren. Jendea ordena handi batetan zegoen eta ez zen inor bere tokitik higitzen. Noizean behin, "askatasuna" eta antzeko oihuak entzuten ziren, eta erritmikoki kantatalde saiatu bat bailitzen, jendeak bere ahotsa eta eritzia kanporatzen eta entzun erazten zuen.

Ilunduz zihoa eguna, eguzkia —egun osoa ez agertua— aspaldi sartua zatekeen. Ez zen ia ikurrina ikusten ahal, eta jendea kantaldiari atxekirik zegoen, zuen adimendu osoz hari jarraikiz.

Pantxo eta Peioren agertaldia bukatzera zihoala, zenbait polizia agertu zen garabi inguruan, buruoskol eta guzti, ikurrina kentzeko asmoz. Esan beharra dago ezen horretarako aurretik eginiko zerbait saiok, porrot egin izan zutela. Baina, azkenean, jendearen txistu soinuen artean, haietarikoa batek bere helburua lortu zuen.

Ordurako Mikel Laboa hasteko zegoen. Gauaren iluna, gauaren gris iluna, gauaren arre iluna heldua zen. Fokoak pizturik zeuden eta kantariak ez zuen haiez beste aldean ezer ikusten. Baina atzeko aldean, polizia sartuak ziren eta erasotzen hasiak ziren. Jendea aurrentz zetorren, zureko aulkien gainetik balla-lasterketa dantesko batetan, zaharrek, gazteek, ezkonduak, ezkongaiak, emakumeek, gizon-ezkoek, haurdunak, haurgabeak, haurrek eta bestek parte hartzen zutelarik.

Jolaslekuko irteera guztiz ttikia zen eta jendeak ezin zuen irten. Hura hestura!

Dena dela, posik egon gaitzke, zoritxar handiagorik gertatu ez zenean. Lurrean botila zatiak —beira zorrotzak, beraz—; batzuk beren zapatak galdu zituzten —ortozik zihozten, beraz—; izuaren mamua gainean zegoen...Jendeak, neurri handi batetan, zibilki eta jatorki jokatu zuen. Zorionak eta eskerrak berari!

Horrelako gertakarien aurren erreflexionatu egin behar dugula uste dut. Noren edo zeren erruz gertatzen dira?. Zer kalte egiten zuen, han zegoen ikurrinak? Espainako Estatu barneko beste nazionalitateek beren bandera publikoki agertzeko eskubidea dute, Katalunia, Galizia eta Andaluziaren kasua lekuko.

Eta guk?... Edo eta gu bigarren mailako herritarak gara?. Eta hau diodanean, Juan Carlosek Katalunara eginitako bidaia datorkit burura batez ere: Katalan bandera toki guztietan agertzen zen, Espainiako Estatuaren banderarekin batera.

Besterik behar al da esaterik?.

J.R. Etxebarria.